

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2023 000002987

Espediente-zenbakia: 2023/IDA_DEK0807

Xedea

Kontratazio mahai orokorra izendatzea.

Aurrekariak

Bakarra.- 2023ko ekainaren 17an Udal Korporazino barria eratu da eta, ondorioz, kontratazino mahai orokorra izendatu beharra dago.

Oinarri juridikoak

Lehena.- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 326. artikularen arabera, administrazio publikoen kontratazio-organoek kontratazio mahai baten laguntza izango dute hainbat lizitazio prozeduretarako.

Bigarrena.- Toki administrazioen kasuan, aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarriak arautzen du kontratazio mahaien osaketa, hurrengo adieraziz:

“Kontratazio-mahaiko burua udalbatzako kide bat edo funtzionario bat izango da; mahaikide izango dira udalbatzako idazkaria edo, hala behar duenean, udalbatzari aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna duen organoaren titularra, eta kontuhartzailea, edo, kasua bada, kontrol ekonomikoaren eta aurrekontukoaren gaineko eginkizuna esleitua duen organoaren titularra, bai eta, karrerako funtzionarioen edo udalbatzaren zerbitzura ari diren langile lan-kontratudunen edo zinegotzien artean kontratazio-organoak izendatutako beste batzuk ere; kopurua, guztira, ez da hirutik beherakoa izango. Kontratazio-mahaiko kide diren hautetsiak ezingo dira izan mahaiko kide guztien herenak baino gehiago.”

Hirugarrena.- Era berean, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21. artikulua kontratazio mahaien osaketa erregulatzen du. Idazkariari dagokionez, hirugarren atalak ondokoa dio: *“el secretario deberá ser un funcionario que preste sus servicios en el órgano de contratación.”*



Laugarrena.- Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarriak ezarritakoarekin bat etorritik.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta honako hau erabagi dot:

LEHENENGOA: Bermeoko Udalaren Kontratazino Mahai orokorra modu honetan izendatzea onartzea:

- Mahaiburua: Idazkaritzako Administrazio Orokorreko Teknikaria edo legez ordezkatzeko duena.
- Kideak:
 - Korporazioaren Idazkari Orokorra edo legez ordezkatzeko duena.
 - Udaleko Kontu-hartzailea edo legez ordezkatzeko duena.
 - Kontratuaren sustatzen duen arloko teknikaria edo, bere kasuan, horretarako izendatzen den teknikaria.
- Idazkaria: Idazkaritzako administrari laguntzailea edo, bere kasuan, ordezkari izendatzen dena.

BIGARRENA.- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profileen argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Akordio hau udaleko sailburuei eta udal taldeetako bozeramaileei helaraztea, jakinaren gainean egon daitezela.

LAUGARRENA.- Hurrengo Osoko Bilkuran dekretu honen berri ematea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .



Sinadurea eta data

